| KARROZEK ETA KONPARTSEK 2026KO TOLOSAKO INAUTERIETAKO KALEAN PARTE HARTZEKO ETA LAN-PABELLOIA ESKURATZEKO OINARRIAK | BASES PARA LA PARTICIPACIÓN DE CARROZAS Y COMPARSAS EN LOS CARNAVALES DE TOLOSA Y PARA LA OBTENCIÓN DE UN PABELLÓN DE TRABAJO |
| --- | --- |
| **LEHENENGO A.– Helburua**<br><br>Deialdi honen helburua da inauterietan karrozek, gazte konpartsek eta konpartsek espazio publikoa erabiltzea baimentzea, betiere segurtasuna eta bizikidetza egokia bermatuta.<br><br>Deialdi honetan, parte-hartzaileen betebeharrak, izen-emate prozedurak, aurkeztu beharreko dokumentazioa, desfilearen antolaketa, sariak eta balorazio-irizpideak zehazten dira. Era berean, karrozek eta konpartsek lanerako izango dituzten udal-espazioen erabilerarako baldintzak jasotzen dira. | **PRIMERO.– Objeto**<br><br>El objeto de la presente convocatoria es autorizar el uso del espacio público por parte de carrozas, comparsas joven y comparsas durante los carnavales, garantizando en todo momento la seguridad y una adecuada convivencia.<br><br>En esta convocatoria se establecen las obligaciones de las personas participantes, los procedimientos de inscripción, la documentación que debe presentarse, la organización del desfile, los premios y los criterios de valoración. Asimismo, se recogen las condiciones de uso de los espacios municipales de los que podrán disponer y hacer uso las carrozas y comparsas para su trabajo. |
| **BIGARRENA.– Desfileko parte hartzaileak**<br><br>Desfilean parte hartzeko eskaerak karrozak, gazte konpartsa edo konpartsetako ordezkariek egin ahal izango dituzte, karroza edo gazte konpartsaren izenean.<br><br>Derrigorrezko baldintzak parte-hartzaile guztientzat: antzezpenak, zuzeneko musika edo koreografia egitea. | **SEGUNDO.– Participantes en el desfile**<br><br>Las solicitudes para participar en el desfile podrán ser realizadas por los representantes de las carrozas, comparsas jovenes o comparsas.<br><br>Requisitos obligatorios para todos los participantes: hacer una actuación, música en directo o coreografía. |

| | |
|---|---|
| • Zuzeneko musika: musikariek denbora errealean jotzen duten ikuskizuna izango da.<br>• Koreografia: aldez aurretik prestatutako dantza edo gorputz-mugimenduen ikuskizuna.<br>• Antzezpen eszenikoa: narrazio baten gainean oinarritutako ikuskizuna; antzerkia, clown-a, play black-a mimoa edo etab. | • Música en directo: espectáculo interpretado en tiempo real.<br>• Coreografía: espectáculo de danza o movimiento corporal preparado previamente.<br>• Actuación escénica: basada en una narración: teatro, clown, play black, mimo o etc-ra. |
| **Karrozak**<br><br>Gutxienez 5 partaide izan beharko dituzte. Karroza ibilgailu, atoi edo remolke bat izango da, lau gurpil neumatiko dituen ibilgailu edo atoi batek tiratua. Ibilgailu, atoi edo remolkeen neurriak gutxienez 2,5 metro zabalera eta 6 metro luzera izan beharko dituzte. Desfilean leku zehatz bat izango dute. | **Carrozas**<br><br>Deberán contar con al menos 5 participantes. La carroza será un vehículo, remolque o similar, tirado por un vehículo o remolque con cuatro ruedas neumáticas. Las dimensiones mínimas serán de 2,5 metros de ancho y 6 metros de largo.Tendrán un sitio determinado en el desfile. |
| **Gazte – konpartsak (plataformadunak)**<br><br>Gutxienez 10 partaide izan beharko dituzte. Plataformaren gehieneko neurriak: 2 metro zabalera eta 3 metro luzera. Eskuz garraituko diren plataforma dira ibilgailurik gabe eta gurpil giratorioak izango dituzte. Desfilean leku zehatz bat izango dute. | **Comparsas de jóvenes (con plataformas)**<br><br>Deberán contar con al menos 10 participantes. Las plataformas serán con un máximo de 2 metros de ancho y 3 metros de largo. Se transportarán sobre sus propias ruedas giratorias y no serán tiradas por vehículos. Tendrán un sitio determinado. |
| **Konpartsak**<br><br>Gutxienez 2 partaide izan beharko dituzte. Hiru motatakoak izan daitezke: plataforma txiki bat dutenak (gehienez 1,5 metro zabal eta 2 metro luze izango dira), plataformarik gabeak ez dutenik leku finkorik eta batetik bestera ibili ahal | **Comparsas**<br><br>Deberán contar con al menos 2 participantes. Podrán ser de tres tipos: las que cuenten con una pequeña plataforma (tendrán como máximo 1,5 metros de ancho y 2 metros de largo), las que no tengan plataforma y no teniene un lugar fijo y podrán moverse |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| izango dira eta leku zehatz batean ezartzen diren konpartsak. | de un sitio a otro y las comparsas que se instalan en un lugar concreto. |
| **HIRUGARRENA.– Izena ematea** | **TERCERO.– Inscripción** |
| Izena emateko epea 2026ko urtarrilaren 2etik 16ra izango da. | El plazo de inscripción será del 2 de enero al 16 enero de 2025. |
| Izen-ematea udalak horretarako prestatutako formularioaren bidez egingo da, eta bertan honako datu eta informazio hauek adierazi beharko dira:<br>• Ordezkariaren datuak.<br>• Mota: karroza, konpartsa edo gazte konpartsa den.<br>• Irteera egunak.<br>• Partaide kopurua.<br>• Plataforma prestatzeko leku-beharrak.<br>• Dirulaguntza eskatu nahi den ala ez.<br>• Sariketan parte hartu nahi den ala ez.<br>• Parte-hartzaileek egingo dutenaren deskripzio laburra. | La inscripción se realizará mediante el formulario preparado por el ayuntamiento para tal fin, en el que deberán indicarse los siguientes datos e informaciones:<br>• Datos de la persona representante<br>• Tipo: si se trata de carroza, comparsa o comparsa joven<br>• Días de salida<br>• Número de participantes<br>• Necesidades de espacio para preparar la plataforma<br>• Si se desea solicitar subvención o no<br>• Si se desea participar en el concurso o no<br>• Breve descripción de lo que realizarán los participantes |
| Interesdunek behar duten aukera markatuko dute formularioan. | Los/las interesados/as marcarán en la solicitud las opciones que correspondan. |
| Gazte konpartsek eta karrozek formularioa bete ondoren, eskaera eta zozketaren emaitzen arabera, ordezkari bakoitzak udaleko eskaera-orri ofiziala bete beharko du. Lan pabiloia eskatu ez dutenek eta konpartsek ez dute eskaera-orri ofizialik bete beharko. | Tras completar el formulario, y según la solicitud y los resultados del sorteo, cada representante de las comparsas jóvenes y de las carrozas deberá rellenar la hoja oficial de solicitud del ayuntamiento. Quienes no hayan solicitado pabellón de trabajo, así como las comparsas, no deberán cumplimentar dicha hoja oficial de solicitud. |
| Formularioa betetzen duen interesduna eta udaleko eskaera-orri ofiziala | La persona interesada que complete el formulario y la que rellene la hoja oficial |

| | |
|---|---|
| betetzen duen pertsona bera izango dira; pertsona horrek izango du uneoro karrozaren, gazte konpartsaren edo konpartsaren ordezkaritza. | de solicitud del ayuntamiento será la misma; dicha persona será en todo momento la representante de la carroza, la comparsa joven o la comparsa. |
| Eskatzaileak ordezkari baten bidez jarduten badu, nahitaez aurkeztu beharko da behar bezala sinatutako ordezkaritza-inprimakia. | Si la persona solicitante actúa mediante representante, deberá adjuntarse obligatoriamente el impreso de representación debidamente firmado. |
| Adingabeen kasuan, eskaera haien izenean egin beharko da, baina eskaera gurasoek, tutoreak edo legezko ordezkariak sinatu eta baimendu beharko dute. Kasu horretan ez da beharrezkoa izango ordezkaritza borondatezkoaren inprimakia betetzea, legezko ordezkaritza delako | En el caso de personas menores de edad, la solicitud deberá formularse a su nombre, pero deberán firmarla y autorizarla sus progenitores, tutor/a o representante legal. En este supuesto no será necesario rellenar el impreso de representación voluntario, al tratarse de representación legal. |
| **LAUGARRENA.– Eskaera-orri ofiziala aurkezteko modua eta lekua.** | **CUARTO.– Forma y lugar de presentación de solicitudes.** |
| Lan pabiloia eskatu dutenek eta irteera baimena behar duten karrozak eta gazte konpartsek bakarrik aurkeztu beharko dute. | Sólo deberán presentarse las carrozas y comparsas jóvenes que hayan solicitado pabellón de trabajo y que necesiten el permiso de salida. |
| • Pertsona fisikoek eskaerak eta gainerako dokumentazioa Tolosako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dituzte (https://udala.tolosa.eus/es), tramiteen ataritik dagokion dirulaguntza-lerrora sartuta. | • Las personas físicas podrán presentar las solicitudes y documentación a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Tolosa: https://udala.tolosa.eus/es |
| **BOSGARRENA.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa** | **QUINTO. – Documentación a presentar** |
| Karroza eta gazte- konpartsen kasuan. | En el caso de las carrozas y comparsas jovenes. |

| | |
|---|---|
| 1. Udalak emandako eskaera-orri normalizatua. Udalaren egoitza elektronikoan eskuragarri<br><br>Entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du.<br><br>2. Ordezkaritza agiria, hala badagokio, eta ordezkaritza hori egiaztatzen duen dokumentazioa.<br><br>3. Karrozen kasuan, erantzukizun zibileko asegurua, parte-hartzaileak eta hirugarrenei eragindako kalteak estaltzen dituena.<br><br>Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada:<br><br>1. Karrozen kasuan, karroza gidatuko duen pertsonaren gida baimena.<br><br>**4. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria**<br><br>Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluak aitortzen du herritarrek eskubidea dutela edozein administraziok egindako dokumentuak ez aurkezteko. Horrela, Tolosako Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez. Plataforma hori EAEko sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat da, administrazioen artean datu elektronikoak trukatzeko nodo autonomiko gisa. | 1. Impreso de solicitud normalizado disponible en la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Tolosa.<br><br>Deberá estar firmado por la persona que tenga la capacidad legal para representar a la entidad solicitante.<br><br>2. Documento de representación, en su caso, y la documentación que acredite la misma.<br><br>3. En caso de las carrozas, seguro de responsabilidad civil que cubra daños a participantes y terceros.<br><br>En caso de oposición a la consulta de documentos:<br><br>1. En el caso de carrozas, el permiso de conducir de la persona que vaya a conducir la carroza.<br><br>**4. Documentación interoperable y verificable**<br><br>El art. 28 de la ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración. De tal forma que el Ayuntamiento de Tolosa podrá consultar o recabar dichos documentos a través del nodo de interoperabilidad NISAE, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para el intercambio de datos electrónicos entre distintas administraciones. |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| Era berean, herritarrei aitortzen zaie edozein Administraziok eginiko dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Tolosako Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez. NISAE euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztiek erabiltzen duten plataforma da, datu elektronikoak administrazio batzuen eta besteen artean partekatzeko nodo autonomikoa, hain zuzen. | A su vez, se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración. De tal forma que el Ayuntamiento de Tolosa podrá consultar o recabar dichos documentos a través del nodo de interoperabilidad NISAE, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para el intercambio de datos electrónicos entre distintas administraciones. |
| Pertsona/entitate eskatzaileek berariaz adierazi ahal izango dute ez daudela ados dokumentuak egiaztatzearekin; horrelakoetan, haiek aurkeztu beharko dituzte dokumentuak. | Las personas/entidades solicitantes podrán mostrar su oposición expresa a la verificación de documentos, en cuyo caso serán ellas mismas las encargadas de su aportación. |
| Ildo horretan, dirulaguntza lerro honetarako, honako baldintza hauek egiaztatuko dira NISAE bitartekaritzarako edo sarbide publikorako plataforma korporatiboen bidez:<br>1. Identitate-datuak kontsultatzea Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari.<br>2. Trafiko Zuzendaritza Nagusia - Gidabaimena | En este sentido, los requisitos que se verificarán para esta línea de subvención a través de las plataformas corporativas, de intermediación NISAE o acceso público serán los siguientes:<br>1. Consulta de datos de identidad a la Dirección General de Policía.<br>2. Dirección General de Tráfico - Carné de Conducir |
| Salbuespenez, instrukzio-organoak ezin baditu aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak eskuratu, berriz eskatu ahal izango dio pertsona/entitate eskatzaileari aurkez ditzala. | Excepcionalmente, si el órgano instructor no pudiera recabar los documentos citados en los apartados anteriores, podrá solicitar nuevamente a la persona/entidad solicitante su aportación. |
| Besterik ezean, prozedura bideratu eta ebazteko ardura duen organo eskudunak eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaera behar bezala | En última instancia, el órgano competente responsable de instruir y resolver el procedimiento podrá requerir |

| | |
|---|---|
| ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia. | cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada. |
| Tolosako Udalak datu pertsonalen tratamendua legitimatuta geratzen da interes publikoaren alde egindako eginkizun bat betetzean edo Udalari berari emandako botere publikoak erabiltzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. | El tratamiento de los datos de carácter personal por parte del Ayuntamiento de Tolosa queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al propio Ayuntamiento en los términos previstos en el artículo 6.1. e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016. |
| **SEIGARRENA.– Desfilean parte hartzea eta sariak** | **SEXTO.– Participación en el desfile y premios** |
| Desfileak otsailaren 15ean, 16an eta 17an egingo dira. Desfilea horrela antolatuko da:<br><br>**Karrozak:** San Frantzisko pasealekuan kokatuko dira, geldirik. Udalaren elektrifikazioan konektatu beharko dira. Hurrenkera zozketaz zehaztuko da, eta Udalak jakinaraziko dio bakoitzari non doan. Derrigorrezkoa izango da udalak esleitutako zenbakia karrozan jartzea. | Los desfiles se celebrarán los días 15, 16 y 17 de febrero.<br>El desfile se organizará así:<br><br>**Carrozas:** se ubicarán en el paseo de San Francisco, estáticas y conectadas a la red eléctrica municipal. El orden se determinará mediante sorteo, y el Ayuntamiento comunicará a cada uno dónde le corresponde. Será obligatorio colocar en la carroza el número asignado por el Ayuntamiento. |
| Honako ordutegia izango dute:<br><br>• Igandea (Zaldunita): 11:00 – 01:00<br>• Astelehena (Astelehenita): 11:00 – 01:00<br>• Asteartea (Astearita): 11:00 – 01:00 | Dentran el siguente horario:<br><br>• Domingo (Zaldunita): 11:00–01:00<br>• Lunes (Astelehenita): 11:00–01:00<br>• Martes (Astearita): 11:00–01:00 |

| | |
|---|---|
| **Gazte konpartsak:** udalak jakinarazitako eta esleitutako lekuan kokatuko dira, geldirik. Hurrenkera zozketaz zehaztuko da, eta Udalak jakinaraziko dio bakoitzari non doan. Derrigorrezkoa izango da udalak esleitutako zenbakia konpartsan jartzea.<br><br>Honako ordutegia izango dute (musika jarrita izateko) :<br><br>• Igandea (Zaldunita): 11:00 – 23:00<br>• Asteartea (Astearita): 11:00 – 23:00<br><br>**Konpartsak:** ez dute kokapen zehatzik izango. Derrigorrezkoa izango da udalak esleitutako zenbakia konpartsan jartzea sariketan parte hartu eta dirulaguntza jaso nahi bada.<br><br>Honako ordutegia izango dute (musika jarrita izateko) :<br><br>• Igandea (Zaldunita): 11:00 – 01:00<br>• Astelehena (Astelehenita): 11:00 – 01:00<br>• Asteartea (Astearita): 11:00 – 01:00<br><br>**ZAZPIGARRENA.– Karrozak, gazte konpartsak eta konpartsen plataformak eraikitzeko espazioaren aldi baterako erabilera.**<br><br>Inauterietan parte hartu nahi duten karrozek, gazte konpartsek eta | **comparsas jovenes:** permanecerán estáticas en el lugar asignado y adjudicado por el Ayuntamiento. El orden se determinará mediante sorteo, y el Ayuntamiento comunicará a cada uno dónde le corresponde. Será obligatorio colocar en la comparsa el número asignado por el Ayuntamiento.<br><br>Dentran el siguente horario (para tener la musica puesta):<br><br>• Domingo (Zaldunita): 11:00–23:00<br>• Martes (Astearita): 11:00–23:00<br><br>**Comparsas:** no tendrán una ubicación determinada. Será obligatorio colocar el número asignado por el Ayuntamiento si se desea participar en el concurso y recibir la subvención.<br><br>Dentran el siguente horario (para tener la musica puesta):<br><br>• Domingo (Zaldunita): 11:00–01:00<br>• Lunes (Astelehenita): 11:00–01:00<br>• Martes (Astearita): 11:00–01:00<br><br>**SEPTIMO.– Uso temporal del espacio para la construcción de carrozas, comparsas jovenes y plataformas.**<br><br>Las carrozas, comparsas joven y comparsas con plataforma que deseen |

| | |
|---|---|
| konpartsak (plataformadunek) lan leku bat izango dute eta hori erabiltzeko eskaera egin ahal izango dute. | participar en los carnavales tendrán un lugar de trabajo y podrán solicitar su uso. |
| Espazioaren esleipena honako irizpide eta lehentasun hauen arabera egingo da:<br>• Tolosako karrozen elkarteko karrozek izango dute lehentasuna.<br>• Ondoren, norberaren jabetzako edo alokatutako karroza dutenek eta horiek egiteko espazioa eskatu dutenek.<br>• Ondoren, gazte konpartsek eta konpartsa plataformadunek. | La asignación se realizará según los siguientes criterios y prioridades:<br>• Tendrán prioridad las carrozas pertenecientes a la asociación de carrozas de Tolosa.<br>• Después, las carrozas propias o alquiladas que lo soliciten.<br>• Después, comparsas-joven y comparsas con plataforma. |
| Eskaerak eskuragarri dagoen espazioa baino gehiago badira, zozketa bidez esleituko da. | Si hay más solicitudes que espacios disponibles, se realizará un sorteo. |
| Izena ematean espazio-eskaera adierazi beharko da. Izena emateak, aldi berean, lan espazioko baldintzak onartzea ekarriko du. Eskaera-orrian espazioaren erabilera ez adierazten duenak ez du baimenik izango bertan sartzeko. | Al inscribirse se deberá indicar la solicitud de espacio. La inscripción supondrá, a su vez, la aceptación de las condiciones del espacio laboral. Quien no indique el uso del espacio en la hoja de solicitud no tendrá autorización para acceder a la misma. |
| Eskaera egiten duen pertsona izango da espazioaren ordezkari eta arduraduna ere. Ordezkariaz gain, beste bost pertsona sartuko dira lan-lekuan lan egin nahi den aldi bakoitzean. | La persona solicitante será tambien la representante y responsable del espacio. Además del representante, solo podran entrar cinco personas mas a trabajar cada vez que lo hagan. |
| Espazioa erabilgarri egongo da karrozentzat urtarrilaren 9tik aurrera eta gazte-konpartsentzat urtarrilaren 16tik aurrera. | El espacio estará disponible desde el 9 de enero para las carrozas y el 16 de enero las comparsas jóvenes. |
| Ordutegia: astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:30era, eta asteburuetan 10:00etatik 20:30era. | Horario: lunes a viernes de 17:00 a 20:30; fines de semana de 10:00 a 20:30. |

| | |
|---|---|
| **Otsailaren 22rako** karroza eta plataforma guztiak espaziotik atera beharko dira; bertan geratzen den guztia botako da.<br><br>**Lan pabiloiko sarrera-antolaketa:**<br><br>• Gazte- konpartsen plataformak: urtarrilaren 16tik 17:00etatik aurrera sartu ahal izango dute.<br>• Karrozak: urtarrilaren 9an, 18:00etatik aurrera. Karroza bakoitzetik gutxienez lau lagun etorri beharko dira lekualdatzea egiteko Udaltzaingoak lagunduko du. | **Para el 22 de febrero** todas las carrozas y plataformas deberán salir del espacio; allí se tirará todo lo que quede.<br><br>**Organización de la entrada al pabellón de trabajo:**<br><br>• Plataformas de comparsas jovenes: podrán entrar a partir del 16 de enero a las 17:00 horas.<br>• Carrozas: 9 de enero, a partir de las 18:00 horas. De cada carroza deberán acudir al menos cuatro personas para realizar el traslado con la Policía Municipal. |
| **ZORTZIGARRENA.– Espazioaren erabilera-baldintzak**<br><br>• Baimendutako pertsonek soilik erabili ahal izango dute espazioa; plataformak eta karrozak eraikitzeko eta dekoratzeko bakarrik. Debekatuta egongo da bestelako jardueretarako erabiltzea.<br>• Baimenaren titularrek zorrotz bete beharko dituzte laneko osasun eta segurtasun arauak.<br>• Udalak ikuskapenak egin ahal izango ditu neurri horien betetze egokia bermatzeko.<br>• Erabiltzaileek arriskuzko, arduragabeko edo utzikeriako jokabideak saihestu beharko dituzte. Baldintzak urratuz gero, Udalaren edo hirugarrenen aurrean erantzungo dute. | **OCTAVO.– Condiciones de uso del espacio**<br><br>• Solo las personas autorizadas podrán usar el espacio, exclusivamente para construir y decorar carrozas o plataformas. Se prohíbe su uso para otras actividades.<br>• Se deberán respetar las normas de seguridad y salud laboral.<br>• El Ayuntamiento podrá realizar inspecciones.<br>• Queda prohibido el uso negligente, peligroso o irresponsable del espacio. Los usuarios serán responsables de los daños que causen.<br>• Se deberán seguir las instrucciones del personal técnico municipal. |

| | |
|---|---|
| • Une oro bete beharko dira udaleko zerbitzu teknikoen jarraibideak.<br><br>• Ordutegia: astelehenetik ostiralera 17:00–20:30; asteburuetan 10:00–20:30.<br><br>• Lan-eremuko ateak itxita egon beharko du, eta debekatuta egongo da baimenduta ez dauden pertsonak sartzea.<br><br>• Debekatuta dago ibilgailuak barruan aparkatzea eta bertan erretzea.<br><br>• Udalak instalazioetarako sarrera mugatu edo galarazi ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik.<br><br>• Arriskutsuak izan daitezkeen elementuak saihestu beharko dira, bai eraikuntza garaian, bai jendaurrean jartzean.<br><br>• Plataformen eta karrozen artean gutxienez 1,20 m-koa izan beharko da tartea.<br><br>• Debekatuta dago produktu sukoirik sartzea, sua egitea edo txinpartak sortzen dituzten tresnak erabiltzea.<br><br>• Espazioa garbi mantendu beharko da une oro.<br><br>• Entxufeak ez dira gainkargatuko, eta lana amaitutakoan dena deskonektatu beharko da.<br><br>• Jarduera amaitzean, titularrek espazioa baldintza egokietan utzi beharko dute. | • El horario será de 17:00–20:30 entre semana y 10:00–20:30 fines de semana.<br><br>• El recinto deberá permanecer cerrado; se prohíbe el acceso a personas no autorizadas.<br><br>• No se permitirá aparcar vehículos en el interior, ni tampoco fumar.<br><br>• El Ayuntamiento podrá restringir o denegar el acceso por razones de interés público.<br><br>• Se prohíben productos inflamables, fuego o herramientas que generen chispas.<br><br>• Se deberán mantener distancias mínimas de 1,20 m entre carrozas/plataformas.<br><br>• Se prohíben productos inflamables, fuego o herramientas que generen chispas.<br><br>• Solo se podrán usar pinturas al agua.<br><br>• El espacio deberá mantenerse limpio en todo momento.<br><br>• Los enchufes no deberán sobrecargarse y todo deberá desconectarse al terminar.<br><br>• Al finalizar la actividad, los titulares deberán dejar el espacio en condiciones adecuadas.<br><br>• Cualquier incidencia deberá notificarse de inmediato.<br><br>• Los residuos deberán depositarse en los contenedores correspondientes |

| | |
|---|---|
| • Edozein gorabehera (uholdeak, hausturak…) berehala jakinarazi beharko da.<br><br>• Material eta hondakinak dagokien edukiontzietan utzi beharko dira.<br><br>Baldintza hauek ez betetzeak baimena baliogabetzea ekarriko du, eta espazioa erabiltzeko aukera galtzea. Era berean, dirulaguntza ukatu egingo da.<br><br>Lekuen banaketa Udalak emandako plano batean adieraziko da.<br><br>**BEDERATZIGARRENA. – Desfilerako arau orokorrak**<br><br>**Antolaketa eta ibilbidea**<br><br>• Karrozak eta gazte konpartsak ibilbidean bakarrik egongo dira, baimentzen zaien lekuan. Ezingo dira baimendutako lekutik kanpo egon.<br><br>• Karrozetan instripuak ekiditeko gehienez 8 pertsona igo ahal izango dira ibilbidean zehar.<br><br>• Desfileen egunetan, udal karrozak gidatzen dituzten pertsonek eta karroza guztien ordezkari/arduradunek lan-espazioan egon behar dute, karrozen udalarekin adostutako ordutegian, ordenatuta irten ahal izateko, eta desfilean dagokien lekua hartzeko; hitzartutako orduan ez egoteak karrozak desfilean lekua galtzea ekarriko du. | El incumplimiento de estas condiciones conllevará la revocación de la autorización y la pérdida de la posibilidad de utilización del espacio. Asimismo, se denegará la subvención.<br><br>La distribución de los espacios se indicará en un plano facilitado por el Ayuntamiento.<br><br>**NOVENO.– Normas generales para el desfile**<br><br>**Organización y recorrido:**<br><br>• Las carrozas y comparsas de jovenes estarán sólo en el recorrido, donde se les permita. No podrán estar fuera del sitio autorizado.<br><br>• Para evitar intrumentos en las carrozas se podrá subir un máximo de 8 personas a lo largo del recorrido.<br><br>• Durante los días de los desfiles, las personas que conduzcan las carrozas municipales y los representantes/responsables de todas las comparsas jovenes s deberán permanecer en el recinto de trabajo, en horario acordado con el Ayuntamiento de las carrozas, para poder salir ordenadamente y ocupar el lugar que les corresponda en el desfile; la ausencia a la hora convenida |

| | |
|---|---|
| • Udaltzainak beti egongo dira laguntzen karroza desfilera eramaten eta itzultzerakoan ere bai.<br><br>• Lekualdatzean, karrozen arteko distantzia 10 metrotik gorakoa izango da, eta lerrokatuta eta uniformeki lekualdatu beharko dira.<br><br>• Lehenik, karrozen erdiak aterako dira txanda batean, eta gero bigarren txanda. Bakoitzak bere txandan joan beharko du.<br><br>• Karroza edo gazte konpartsaren bati matxura edo gorabeheraren bat gertatuz gero, ibilgailua bidetik aldendu eta berehala jakinarazi beharko dio udalari.<br><br>• Udalak karrozentzat eta gazte konpartsentzat ibilbide bat proposatuko du, bertan geldirik egongo direnak; gainontzeko konpartsek eta plataformadunek ez dute leku finkorik izango.<br><br>• Ibilbideko kokapenak zozketa bidez esleituko dira, iaz irabazleak izan ezik; horiek sari moduan gustuko duten lekua hautatuko dute.<br><br>• Ibilbidean esleitutako lekuak ezingo dira aldatu antolakuntzaren baimenik gabe.<br><br>• Desfilearen egunean, karrozetako eta gazte-konpartsen ordezkari guztiek lan-espazioan egon beharko dute. Pabiloitik irteten hasteko, gutxienez 5 pertsona eta segurtasun-arduraduna egotea nahitaezkoa da karroza bakoitzean; etorreran ere berdina izango da. Esandako | supondrá la pérdida de espacio de la carroza en el desfile.<br><br>• La Policía Municipal siempre estará acompañada en el traslado y regreso de la carroza al desfile.<br><br>• En el traslado, la distancia entre carrozas será superior a 10 metros, debiendo desplazarse alineados y uniformes.<br><br>• Primero saldrán la mitad de las carrozas en una tanda y luego la segunda tanda. Cada uno tendrá que ir en su turno.<br><br>• En caso de avería o incidencia en una carroza o comparsas jovenes , deberá comunicar inmediatamente al Ayuntamiento el alejamiento del vehículo de la vía.<br><br>• El Ayuntamiento propondrá un itinerario para carrozas y comparsas jovenes, que permanecerán inmóviles en el mismo, sin espacio fijo para el resto de comparsas jovenes s y portaplataforma.<br><br>• Las ubicaciones del recorrido se adjudicarán por sorteo, excepto las ganadoras el año pasado, que elegirán como premio el lugar que les guste.<br><br>• Los lugares asignados en el itinerario no podrán modificarse sin autorización de la organización.<br><br>• El día del desfile, todos los representantes de las carrozas y comparsas jovenes s deberán estar en el recinto de trabajo. Para iniciar la salida del pabellón |

| | |
|---|---|
| lekuan eta orduan ez aurkezteak antolakuntzan desordena sortzen du, eta dirulaguntza galtzeko arrazoia izan daiteke, baita hurrengo egunean desfilean parte hartzeko ere.<br><br>• Bai karrozek, konpartsek eta baita gazte- konpartsek partaidetza-zenbakiak jarriko dituzte, karrozaren, konpartsaren edo gazte konpartsaren aurreko eta alboko aldean, ikusgai egon daitezen. | es imprescindible que haya un mínimo de 5 personas y un responsable de seguridad en cada carroza, siendo igual a la llegada. No presentarse a la hora y en el lugar indicado genera desorden en la organización y puede ser motivo de pérdida de la subvención, incluso para participar en el desfile al día siguiente.<br><br>• Tanto las carrozas, como las comparsas y comparsas jovenes dispondrán números de participación en la parte delantera y lateral de la carroza o comparsas para su exposición. |
| **HAMARGARRENA. – Karroza eta gazte konpartsen baldintza teknikoak**<br><br>Karroza guztiek baldintza tekniko hauek bete beharko dituzte:<br><br>• Gurpilak neumatikoz hornituta egon behar dute, egoera egokia izan behar dute eta su-itzalgailua eramango dute.<br><br>• Gazte konpartsen plataforma esku mugikorra izango da, eta gurpilak sendoak izan behar dute behar bezala funtzionatzeko.<br><br>• Segurtasun-arrazoiak direla eta, karroza eta plataformadun konpartsek dekorazio-elementuak suaren aurkako materialez egin behar dituzte eta erraz desmuntatzeko modukoak izan. | **DÉCIMA. – Condiciones técnicas de carrozas y comparsas jovenes**<br><br>Todas las carrozas deberán cumplir los siguientes requisitos técnicos:<br><br>• Las ruedas deben estar provistas de neumáticos, estar en condiciones adecuadas y llevar un extintor.<br><br>• Las plataforma de las comparsas jovenes s será la mano móvil y las ruedas deben ser sólidas para su correcto funcionamiento.<br><br>• Por razones de seguridad, las comparsas jovenes, carrozas y plataformas deben realizar los elementos decorativos con material ignífugo y fácilmente desmontable. |

| Sistema elektrikoa | Sistema eléctrico |
|---|---|
| • Karrozak sistema elektriko osoak izango ditu, sarrera librearen aurka babestuta, estankoak eta zirkuitu laburretik babestuta.<br>• Ibilbidean karroza bakoitzak bere elektrizitate-puntua izango du; parte-hartzaileek ezin izango dute entxufatu, ezta kablez ere. Horretarako, udalak brigada bat esleituko du.<br>• Debekatuta dago karroza entxufatzea edo askatzea; argiterian edo elektrizitatearekin arazo bat izanez gero, segurtasun-arduradunak udalak desfilearen egunetan jartzen duen argiketari deituko dio.<br>• Gazte-konpartsa eta plataformadun konpartsek grupo elektrogenoarekin aterako dira.<br>• Kableak solte, babesik gabe edo lurrean hartune egokirik gabe ezin izango dira egon.<br>• Ekipoak ondo isolatuta egon behar dira zirkuitu laburrak saihesteko.<br>• Ezin dute sorgailu ez-segururik eduki, eta su-itzalgailua nahitaezkoa da. | • La carroza dispondrá de sistemas eléctricos completos, protegidos contra el acceso libre, estancos y protegidos del circuito corto.<br>• En el recorrido cada carroza tendrá su punto de electricidad, los participantes no podrán enchufarla ni por cable. Para ello, el ayuntamiento asignará una brigada.<br>• Queda prohibido enchufar o soltar la carroza; en caso de tener un problema en el alumbrado o con la electricidad, el responsable de seguridad avisará al atestado que el ayuntamiento ponga los días del desfile.<br>• Las comparsas jovenes y plataformas saldrán con el grupo electrógeno.<br>• Los cables no podrán estar sueltos, sin protección o sin toma adecuada en el suelo.<br>• Los equipos deben estar bien aislados para evitar circuitos cortos.<br>• No pueden tener generadores inseguros y el extintor es obligatorio. |
| **HAMAIKAGARRENA. – Soinu-ekipoak** | **UNDÉCIMA.- Equipos de sonido** |
| • Lan-pabilioitik San Frantziskorako edo leku finkorako ibilbidean zehar ezin izango da musika-ekipoa martxan egon, ez | • Durante el recorrido desde el pabellón de trabajo a San Francisco o al lugar definido no podrá estar operativo el equipo |

TOLOSAKO
UDALA

| | |
|---|---|
| gazte-konpartsetan, ezta karrozetan ere.<br><br>• Karroza, gazte gazte-konpartsa eta konpartsa bakoitzak musika-ekipo bakarra izango du, eta ekipoak ezin izango du 90 dezibelio eta 3.700 watteko potentzia gainditu. Gainera, ezin izango dituzte bi bafle baino gehiago erabili.<br><br>• Gazte konpartsek limitadoreak jarrita atera beharko dute desfilera.<br><br>• Txarangak une oro errespetatu beharko dira, batez ere kalejiran zehar, bai plazara joateko bidean bai itzuleran. Ibilbidea libre izango da kalejirarako; karrozak eta gazte gazte-konpartsak musika gabe egongo dira. | de música ni en las comparsas jovenes ni en las carrozas.<br><br>• Cada carroza, comparsas jovenes y comparsas dispondrá de un único equipo de música, que no podrá superar los 90 decibelios y los 3.700 vatios de potencia. Además, no podrán utilizar más de dos bafles.<br><br>• Las comparsas jovenes saldran con limitadores el dia del desfile.<br><br>• Las txarangas deberán respetarse en todo momento, especialmente durante la kalejira, tanto en el camino de ida como en el de vuelta a la plaza. El recorrido será libre para la kalejira; las carrozas y comparsas jovenes estarán sin música. |
| **HAMABIGARRENA. – Parte-hartzaileen betebeharrak**<br><br>• Ez dira onartuko jarrera diskriminatzaileak erakusten dituzten karrozak edo gazte-konpartsak, bereziki emakumeen edo bestelako identitate sexualen aurkako jarrerak sustatzen dituztenak (lesbianak, homosexualak, transexualak, intersexualak).<br><br>• Ez dira onartuko arraza, sexu, erlijio edo gizakien oinarrizko eskubideen kontrako edozein bereizkeria bultzatzen duten jarduketek.<br><br>• Parte-hartzaileen jarrera eredugarria izan behar du alkohol kontsumoari dagokionez. Edari alkoholikoak ezingo dira agerian | **DUODÉCIMA.- Obligaciones de los participantes**<br><br>• No se admitirán carrozas o comparsas jovenes s que muestren actitudes discriminatorias, especialmente aquellas que promuevan actitudes contrarias a las mujeres u otras identidades sexuales (lesbianas, homosexuales, transexuales, intersexuales).<br><br>• No se admitirán actuaciones que promuevan cualquier tipo de discriminación contra los derechos fundamentales de la raza, el sexo, la religión o el ser humano. |

| | |
|---|---|
| eraman edo sustatu, eta helduek alkohola modu arduratsuan, neurriz eta kontuz kontsumitu beharko dute.<br><br>• Karrozetan, gazte-konpartsetan eta konpartsetan ezingo da publizitaterik egin.<br><br>• Ezer ezingo da bota karrozetatik edo gazte konpartsetatik; bakarrik serpentinak, konfetiak eta antzeko objektuak baimenduko dira.<br><br>• Debekatuta dago lanzallamak eta material piroteknikoa erabiltzea.<br><br>• Debekatuta dago barbakoak, gasezko sukaldeak edo antzeko elementuak erabiltzea elikagaiak prestatzeko.<br><br>• Debekatuta dago animaliarik erabiltzea.<br><br>**HAMAHIRUGARRENA. – Ingurumen baldintzak**<br><br>• Udalak ibilbidean jarriko dituen edukiontzietan bota beharko da zaborra. Karroza eta gazte konpartsa bakoitzak bere zaborra biltzeko baliabideak izango ditu.<br><br>• Debekatuta dago edozein hondakin bide publikoan botatzea (zaborra, likidoak eta bestelako hondakinak).<br><br>• Debekatuta dago kristalezko edalontziak erabiltzea; salbuespen gisa, kristalezko botilak karrozetan eta konpartsetan bakarrik erabili ahal | • Actitud ejemplar de los participantes respecto al consumo de alcohol. Las bebidas alcohólicas no podrán llevarse o promocionarse de forma visible y los adultos deberán consumir alcohol de forma responsable, moderada y cuidadosa.<br><br>• En las carrozas, comparsas de jovenes y comparsas no se podrá hacer publicidad.<br><br>• No se permitirá el lanzamiento de objetos tales como serpentinas, confetis, etc. desde carrozas o comparsas jovenes s.<br><br>• Se prohíbe el uso de lanzallamas y material pirotécnico<br><br>• Se prohíbe el uso de barbacoas, cocinas de gas o elementos similares para preparar alimentos.<br><br>• Se prohíbe el uso de animales.<br><br>**DECIMOTERCERA.- Condiciones ambientales**<br><br>• La basura deberá depositarse en los contenedores que el Ayuntamiento instalará en el recorrido. Cada carroza y comparsas jovenes dispondrá de los medios para recoger su basura.<br><br>• Queda prohibido depositar en la vía pública cualquier residuo (basura, líquidos y otros residuos).<br><br>• Se prohíbe el uso de vasos de cristal; excepcionalmente, las botellas de cristal sólo podrán |

| | |
|---|---|
| izango dira, betiere zaborretara ondo botatzen badira.<br><br>• Karroza, gazte konpartsa eta konpartsa bakoitzak edukiontziak izango ditu inguruan. Noizbehinka, edukiontzi handietan edukitako zaborra bota beharko dute. Igande gauean, karroza bakoitzak dituen edukiontziak eraman beharko ditu asteartean berrerabili ahal izateko. | utilizarse en carrozas y comparsas jovenes , siempre que se depositen bien en la basura.<br><br>• Cada carroza, comparsas joven y comparsa tendrá contenedores alrededor. Ocasionalmente, deberán depositar la basura contenida en los grandes contenedores. El domingo por la noche, cada carroza deberá llevar los contenedores que tenga para poder reutilizarlos el martes. |
| **HAMALAUGARRENA. –**<br><br>Dirulaguntza eskatzeko, derrigorrezkoa izango da antzezpen eszenikoa, zuzeneko musika eta/edo koreografia egitea. Hori egiaztatzeko, antzezpena, zuzeneko musika eta/edo koreografia oso-osorik ikus daitezkeen bideo bat grabatu beharko da. Horrez gain, partaide guztien argazkia ere atera beharko da.<br><br>Bideoa eta argazkia inauteriak pasa ondoren bidali beharko dira helbide honetara: festak@tolosa.eus. Bideoa edo argazkia bidaltzen ez bada, ez da dirulaguntzarik jasoko. | **DECIMOCUARTO.-**<br><br>Para solicitar la subvención, será obligatorio realizar una representación escénica, música en directo y/o coreografía. Para acreditarlo, deberá grabarse un vídeo en el que se vea íntegramente dicha representación, música en directo y/o coreografía. Además, deberá tomarse una fotografía de todas las personas participantes.<br><br>El vídeo y la fotografía deberán enviarse una vez pasados los carnavales a la siguiente dirección: festas@tolosa.eus. Si no se envía el vídeo o la fotografía, no se concederá la subvención. |
| **HAMABOSGARRENA. –**<br><br>**Arau-hausteak**<br><br>• Araudi honetan aipatzen diren betebehar eta baldintzak ez betetzen dituzten karrozak, gazte konpartsak eta konpartsak irteerarik gabe geratu dira astelehenean eta asteartean, | **DECIMOQUINTA. –**<br><br>**Infracciones**<br><br>• Las carrozas, comparsas jovenes y comparsas que incumplan los requisitos y condiciones a que se refiere el presente Reglamento podrán quedarse sin salida el lunes y martes, incluso sin recibir |

| | |
|---|---|
| baita urte horretan dagokion dirulaguntza jaso gabe ere.<br><br>• Tolosako Udalak ez du bere gain hartuko gerta daitezkeen istripu edo kalteen erantzukizuna. Era berean, udalak dagokion urteko irteera-baimenaren ebazpenean xedatutakoari jarraitu beharko dio.<br><br>Tolosa, 2025 Tolosako Udaleko Kultura Saila | la subvención correspondiente ese año.<br><br>• El Ayuntamiento de Tolosa no se hace responsable de los accidentes o daños que puedan producirse. Asimismo, el Ayuntamiento deberá ajustarse a lo dispuesto en la resolución de autorización de salida del año correspondiente.<br><br>Tolosa, 2025 Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Tolosa |